

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Andrés Isasi Udal Musika Eskola (Getxo)****Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskolako barne araubideko Arautegi berria onarpena.**

Getxo «Andrés Isasi» Musika Eskolako Artezkaritza Batzak, 2018ko urriaren 23an egindako bileran, eguneko aztergaien zerrendako beste gai batzuen artean zera onetsi zuen:

1. Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskolako Barne Araubideko Arautegi berria onartzea.

Hau guztia Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez, Lan Eskaintza Publiko hori jendaurrean jarri da, eranskinean jasotakoaren arabera.

Getxon, 2018ko azaroaren 16an.—Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskolako Tokiko Erakunde Autonomoaren Presidentea, Koldo Iturbe Mendilibar

**GETXOKO «ANDRES ISASI» UDAL MUSIKA ESKOLA****BARNE ARAUBIDEKO ARAUTEGIA**

1986ko irailaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakiz Getxoko Udalak «Getxoko Kontserbatorioa» tokiko erakunde autonomoa sortu zuen, baina 1988ko urriaren 28ko Osoko Bilkuraren saioan erakundearen izena aldatu zen eta honako izena jarri zitzaion: «Getxoko Andrés Isasi Udal Kontserbatorioa».

Musika irakaskuntzak berritzearen ondorioz, 1993ko azaroaren 11n Getxoko «Andrés Isasi Udal Musika Eskola» deitu zitzaion.

Barne araubideko arautegiak 1. kapituluaren xedapen orokorrak definitzen ditu, 2. eta 3. kapituluetan, berriz, Musika Eskolan irakaskuntzen antolamendua eta pedagogia plan orokorra xedatzen ditu. Pedagogia plana Musika Eskolako irakaskuntza jarduera guztia antolatzeko elementua da eta oso-osorik eransten zaio araudi honi eranskin modura, separata formatuan.

**I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

1. Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskola musika irakaskuntza zentroa da eta musikan arautua ez dagoen prestakuntza praktikoa eskaintzea du helburu nagusi, alde batera utzi gabe zaletasun eta jarrera bereziak frogatzen dituztenentzat ikasketa profesionalerako orientabidea eta prestakuntza, kudeaketa Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskola tokiko erakunde autonomoari badagokio.

Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskolaren zeregina Getxoko biztanleei pedagogiaren ikuspegitik musika hezkuntza proiektu erakargarria, inklusiboa, musikaren ikuspuntutik eraginkorra eta ekonomikoki ahalbidetza eskaintzea da. Gainera, musika espezialitate eta joera guztietara irekia egongo da eta ikasteko adina ez da oztopo bihurtuko.

Udalerrian hizkuntza normalizazioa errazteko, Getxoko Udalak BIZI programa bultzatu du, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) bizikidetzen jarduteko. Xede horrez, Musika Eskolako hezkuntza eskaintzan eta ematen dituen gainerako zerbitzuetan ohiz erabiltzeko hizkuntza bezala euskararekin aurrerapausoak ematea bilatzen da. Eskolak menderatzen ez duten erabiltzaileei arreta pertsonalizatua bermatuko die.

Musika Eskolak dituen baliabideak kudeatuta herritarren beharrei zuhertasunez, eraginkortasunez eta erantzukizunez erantzuteko udal zerbitzua izan nahi du.

2. Ekonomiaren, administrazioaren eta barne araudiaren ikuspegitik Musika Eskola, beren aginpideen eremuan, «Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskola» tokiko erakunde autonomoaren gobernu organoek hartutako erabakien mendekoa da.

Gainerako maila guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskadiko musika eskoletarako emandako araudiari erreparatuz arautuko dira, 1992ko urriaren 27ko 289/92 Dekretuak edo arloan eman daitezkeen bestelako arauak xedatutakoaren arabera.

Lan harremanak Musika Eskolako hitzarmen kolektiboaren biidez arautu izango dira.

3. Araudi honetako arauak Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskola osatzen duen hezkuntza erkidego guztiari eragiten diote: irakasleei eta irakaskuntzan aritzen ez direnei, ikasleei eta, oro har, zerbitzuaren erabiltzaile guztiei.

**2. artikulua**

«Andrés Isasi» Musika Eskolak honako funtzioak ditu:

- a) Getxoko udalerrian musika kultura sustatu eta bultzatzea.
- b) Musika zabaltzea eta musika zaletasuna garatzeko zereginetan beste musika erakunde batzuekin lankidetzan jardutea.



- c) Aurki daitezkeen musika-baloreak lantzea eta une bakoitzean dauden aukerekin sustatzea.
- d) Helburu orokorraren barruan lan interesgarria egingo duten musika eta abesbatza taldeei laguntzea.
- e) Musikaren onurarako izan daitezkeen jarduerak antolatzea.

**3. artikulua**

Musika Eskolak hurrengo helburuak ditu:

- 1) Gizartean dagoen kultura musikal praktikoa eskara zabala asebetetzea; kultura musikala bidez, musikazaleak norberaren errealizazioa bilatzen badu eta kultur eta adierazpen ondarea zabaltzen du, norberarekin eta ingurunearekin harmonia handiago izateko.
- 2) Aratuak ez dauden musika irakaskuntzak eta osagai praktikoa eskaintzea, nagusiki, taldeko musika egiteko.
- 3) Ondorioz, banaka eta taldean ikaslearen partaidetza aktiboa eta eskola-gizarte eremua elkarrekintza sustatzea. Ikastea norberean hasi eta amaitzeak, gizartean eragin gabe, izateko arrazoia galtzen du.
- 4) Musika orokorrean ulertzeko ezinbesteko gutxieneko alderdi teorikoak irakastea, hasieran, ikasleak berak egindako esketik oinarrituta, gehiago sakontzea nahi badu.
- 5) Haurtzarotik zahartzarora arte, adina kontuan hartu gabe, ikasleei zerbitzua eskaintzeko aukera izatea.
- 6) Musika jardueraren inguruan dagoen sorta guztia eskaintzea: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradizionala, herrikoa, joera desberdinak, rocka, jazz, musika elektronikoa, etab.
- 7) Irakaskuntzaren programazioa ikaslearen ikaste interes, dedikazio eta erritmora egokitzea, ondo ulertuta; horrez gain, ikasleek gutxieneko baldintzak izango dituzte, jasotako ikasketak behar bezala aprobetxatzeko.  
Ondorioz, bere eskaintzaren plangintzan askatasuna eta autonomia izango du, ikaslearen interes eta jarreretara hobe moldatzeko.
- 8) Musika estilo guztienganako gustua indartzea eta espiritu kritikoa garatzea, bai ikasleengan, baita biztanleengan ere.
- 9) Irakasleak etengabe trebatuz eta eguneratuz irakaskuntza tekniken hobekuntza sustatzea.
- 10) Gaitasun eta interesarengatik ikasketa arautuetara iristeko ahalmena eta borondatea dituzten ikasleak prestakuntza sakonagorantz orientatu eta hura eskaintzea; hala, musikaren irakaskuntza zentro aratuak ikasle motibatu eta gaituez hornitzeko haztegia izango da.
- 11) Tokiko eta eskualdeko musika usadioak jaso, sistematizatu eta hedatzea eta, ondorioz, herrian kultur nortasunaren foku bihurtzea.
- 12) Lurraldean, Euskadin, Espainian eta Europan gainerako eskolekin koordinatzea, irakaskuntza metodologiak, ikasleak eta irakasleak, jardura bateratuak, antolaketa eta funtzionamendu ereduak, etab. truka daitezkeen harremanak mantentzeko.
- 13) Musikaren herri kulturaren positiboki eragitea, ez bakarrik ikasleak berak prestatuz, baita gizartean musika zuzenean hedatzeko ekintzaren bidez ere. Horretarako, musika taldeek behin eta berriz jardungo dute jendearen aurrean.



## II. KAPITULUA

**IRAKASKUNTZEN ANTOLAMENDUA****4. artikulua**

Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskolan honako prestakuntza eta gaitasuna irakatsiko dira:

– 1. *maila edo kontaktua, 4-7 urte bitartean.*

Ez da gaitasun mailarik egongo. Soinu jardueraren bitartez irakaslearekin eta gainerako ikasleekin elkarreaginez haurraren nortasuna harmoniaz garatzea sendotuko du.

Barne harmonia duen izaki modura bere burua ezagutuko du eta gauza bera antzemango du bere inguruneari erreparatzen badio. Pixkana instrumentu bereziekin harremanetan jarriko da, bost edo sei urtetik aurrera.

– 2. *maila edo hastapena*

Instrumentua beste adierazpen elementu baten modura hautemango du eta, aldi berean, bere nortasuna eta sentikortasuna garatzeko erabiliko du. Alderdi tekniko hutsa irakasleak indartuko du bakarrik instrumentalki, ikaslearen adierazpena hobetzeko beharrezko elementu bezala.

Hastapena lehenengoz harremana duen eskatzaileari irakasten bazaio eta hori 1. mailatik edo kontaktukotik ez badator, pedagogia bere adin eta baldintzetara egokituko da.

Lortu beharko duen gaitasuna kontserbatorioan oinarritzko maila gainditu behar duen ikaslearena izango da.

– 3. *maila edo finkapena*

Ikasleak irakaskuntza arautuan gradu ertain edo profesionalaren laugarren maila amaitzen duen ikaslearen instrumentu gaitasuna lortuko du.

– 4. *maila edo trebakuntza*

Gaitasun bakarrak ikaslearen interesa, dedikazioa eta ahalmena dira. Oro har, gaitasun hori eskolako taldeetan parte hartuz sendotuko da.

## III. KAPITULUA

**PEDAGOGIA PLAN OROKORRA****5. artikulua**

Pedagogia plana Musika Eskolan garatu behar den hezkuntza prozesuari buruzko dokumentua da.

Zentroko zuzendaritza taldeak eta irakasleek pedagogia plana egingo dute, hezkuntza-administrazio eskudunak curriculum definitu ondoren. Zeregin honetarako erabakiak hartu beharko dira hurrengo inguruan:

- Hezkuntza helburuak eta irakaskuntzaren edukiak zehaztea; izan ere, testuinguru jakinean ikasleen behar zehatzei erantzuteko egokienak izango dira; halaber, operatibo bihurtuko dituzte zentroaren berezko izaeratik datozen hezkuntza printzipio eta aukerak.
- Irakaskuntza edukien sekuentzia zehaztu eta banatzea dagokion hezkuntza mailaren arlo edo ikasgai bakoitzean, aldez aurretik zehaztu diren irizpideei jarraiki.
- Irizpide pedagogiko eta didaktikoak zehaztea hezkuntza ekintza gidatzeko eta ikasleek eskolan gauzatzen duten zereginari jarraipena eta koherentzia ematen zaiela bermatzeko.
- Ikaste estrategiak definitzea proposatutako helburuak lortzeko egokienak izan daitezen, ikasleen egoera kontuan hartuta.



- Ebaluazio metodo eta irizpide egokienak zehaztea ikasleengan ikaste mota zehatza eta irakasleengan hezkuntza estilo jakina sustatzeko.

Plan pedagogikoa lau urtero berriztuko da. Berriztatzea, plan pedagogiko horren arduradunak gidatuko du, irakasleen klaustroak eta helburu horretarako Musika Eskolan sortuko diren lantalde ezberdinek aholkatuta.

## 6. artikulua

Eskolan maila bakoitzean ondorengo irakaskuntzak irakatsiko dira:

- *Irakaskuntza nagusia*: irakaskuntza nagusia da: instrumentuen ataletan, instrumentuaren klaseak, musikoterapiaren klaseak eta kantuaren atalean bakarkako kantua eta abesbatzako kantua.
- *Taldeko irakaskuntza*: abesbatza eta instrumentu taldeak.
- *Irakaskuntza osagarriak*:

Musika Eskolak musika-lengoiaren, ahots teknikaren eta musika-lengoia – jazz harmoniaren irakaskuntza osagarria programa dezake, instrumentuaren, kantuaren edo jazzaren irakaskuntza ikastean ikasleek aurrera egiteko egokitzat jotzen baditu. Musika Eskola honen irizpidea da, orokorrean, edozein irakaskuntzatan gehienez 4 ikasturteko dedikazioa izatea, Musika Eskolako pedagogia helburuak betetzeko egokia baita.

Aukeran eta modu osagarrian, puntualki eta aldi baterako edo iraunkorki, beste edozein irakaskuntza irakats daiteke, ikaslea musika orokorrean hobe menderatzen laguntzen badute.

## 7. artikulua

Ikasleen matrikulazio araubidea honako irizpideen arabera arautuko da:

1. Ikasle oro irakaskuntza nagusian eta taldeko irakaskuntzan matrikulatuko da artikuluko honetako irizpideei jarraiki; hala eta guztiz ere, instrumentuaren ikaslea, ausaz, abesbatza taldean ere matrikula daiteke.

2. Ikasleen matrikulazio araubidea Musika Eskolan honako irizpideen arabera arautuko da:

- 1. maila edo kontaktuzkoa: irakaskuntzaren araubidea orokorrean eta lehenengo urteetan sartuta programatuko da. Irakaskuntza nagusia eta taldekoa adina eta ikaslearen aurrerapen maila kontuan hartuta gomendagarria denean banatuko da.
- 2. maila edo hastapena: ikasle orok irakaskuntza nagusia jaso beharko du eta, modu berean, instrumentuen edo abesbatzaren taldekoetan matrikulatu beharko du, bere aurrerapen mailak hala gomendatzen duenean. Hori Eskolak adierazi beharko du.
- 3. maila edo finkapena: irakaskuntza nagusi bezala instrumentuaren edo bakarkako kantuaren ikasle guztiak, aldi berean, instrumentu eta abesbatza taldeetan matrikulatuko dira, hurrenez hurren. Gerta liteke irakaskuntza nagusian ez matrikulatzea, bakarrik taldean jarduteko interesa badu, baina, gainera, Eskolaren iritziz, instrumentuari edo ahotsari erreparatuz, soilik taldeetan parte hartzeko nahikoa gaitasun badu.
- 4. maila edo lehenetsuneko jarduerarena: ikasle orok taldearen irakaskuntzan parte hartuko du. Berak nahi izanez gero eta Eskolak egokitzat jotzen badu, irakaskuntza nagusiarekin jarrai dezake eta Eskolaren beraren aukera da irakaskuntza hori eskaini edo ez eskaintzea.

Abesbatza kantua irakaskuntza nagusia izan arren, taldeko irakaskuntzaren tratamendu berdina izango du.

Espezialitate horietako ikaslea, ondorioz, bakarrik halako diziplina batean matrikula daiteke.

3. Irakaskuntza osagarriak Eskolak eskainiko ditu zentroaren pedagogia dinamikari, ikasleen interes eta aurrerapen mailari, irakasle sendotuaren baldintzari eta abarri jarraiki. Ez da inolaz ere aukera bakar modura eskainiko eta irakaskuntza nagusiko edo



taldeko irakaskuntzako ikasleak ez direnei ez zaie emango. Halaber, irakaskuntza arautuko ikasleak indartzeko ere ez da aukerarik izango.

4. Musika Eskolak bere ikasleek egindako ikasketak egiazta ditzake, baina bere testu edo formatuek ez dute inolaz ere nahasterik sortuko akademikoki eta profesionalki balioa duten ziurtagiri eta tituluekin.

#### **8. artikulua. — Sustapena Musika Eskolan**

Musika Eskolan automatikoki gertatuko da sustapena, eta betiere ikasleen irakasleek edo tutoreak egindako azken txostenaren arabera.

Ikasleek bi modulu errepika ditzakete 2. mailan eta beste bi 3. mailan. Nolanahi ere, mailaren barruan hezkuntza prozesuaren edozein fasetan errepika daiteke. Ikasleak denboraldi horretan beharrezkoak diren ezagutzak egiaztatzen ez baditu, Eskolan baja eman dakioke, aprobetxamendu ezarengatik.

Salbuespenez, gaixotasunaren arrazoi justifikatuengatik edo zuzendaritza taldearen balioztapenaren arabera beharrezkoa bada, ikasleek modulu bat gehiago errepika dezakete 2. eta 3. mailetan.

1. eta 4. mailetan ez dago errepikatzeko aukerarik.

#### **9. artikulua. — Eskolan irakaskuntza indartua**

1. Ikasle indartuak: balioarengatik, interesarengatik eta aprobetxamendu bereziarengatik Eskolaren iritziz aurrerapen maila bizitu behar duten ikasleak, irakaskuntza arautuan sartzeko.

2. Ikasturte bakoitzean dagoen eskaintzaren arabera eta tutore bakoitzaren txostenak ikusirik, zuzendaritza taldeak hurrengo ikasturtean «indartutzat» joko diren irakasleentz zerrenda jakinaraziko du eta, hala baleude, bete behar dituzten ikasgai osagarriak aditzera emango ditu.

3. Ikasle indartua honako adin baremoen barruan egongo da:

— 2. maila: gehienez 16 urterekin hasiko du.

— 3. maila: gehienez 19 urterekin hasiko du.

— 4. maila: gehienez 21 urterekin hasiko du.

Kontrabaxuaren eta kantuaren diziplinetan hasteko gehieneko adin mugak 18 eta 23 urte izango dira, hurrenez hurren.

#### **10. artikulua**

Ikasle bakoitzarentzat honako dedikazio-aldia izango da:

a) *Hasierako 1. maila:*

— Musika eta mugimendua: astean 60 edo 90 minutu, talde motaren eta garatu beharreko helburuen arabera.

— Instrumentuarekin kontaktua: lantegiaren eta kontzertuaren formatuan edo bakkirik lantegiaren formatuan: ikasle bakoitzeko astean batez beste hamar minutuko arreta ez du gaindituko.

b) *2., 3. eta 4. mailak:*

— Irakaskuntza nagusia: astean banaka batez beste 30 arreta minutu.

— Taldeen irakaskuntza (abesbatzak, orkestrak, bandak, konboak, fanfarreak, orokorrean kamera taldeak...): 30 minutu, 45 minutu, 1 ordu, 1,5 ordu edo 2 ordu astean, taldearen eta garatu behar diren helburuen arabera. Ikasleko astean batez beste ez dituzte hamar arreta minutu inolaz ere gaindituko.

— Musika-lengoaia: talde bakoitzeko astean 90 minutu.

Hala badagokio, dedikazio-aldiak hezkuntza administrazioak erabakitako xedapenekin bat etorritz moldatu daitezke.

Bai ikasgai osagarriak, bai indartze klaseak, puntualak direnez eta ez finkoak, urtero finkatuko dira zentroaren ordutegi planean.

**11. artikulua**

Udal Musika Eskola zentroko iragarkien oholztan azaldutako ordutegietan egongo da irekita.

Edozein mota eta izaerako irakaskuntza jarduera guztiak, baita behar bezala baimenduak dauden taldeen entseguak ere ordutegi horri moldatuko zaizkio.

**12. artikulua**

Ikasleek Eskolan egin behar dituzten praktika guztiak ikasgaien irakaslearen aurrean gauzatuko dira eta zentroko administrazioaren baimena lortuko da. Horrez gain, Eskolaren funtzionamendu ordutegiaren barruan garatuko dira.

**13. artikulua**

Ordutegiak finkatzeko irizpideak ikasturte bakoitzean zuzendaritza taldeak zehaztuko ditu ikasturte bakoitzeko errealitatea kontuan hartuta.

**14. artikulua**

Iragarkien oholztan eta udal webgunean, ikasturtearen hasieratik, eskola egutegia adieraziko da. Langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren eta Eskolako zuzendaritzak onartu ostean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkariak behin betiko onar dezan pasako zaio eta horren berri Musika Eskolako Zuzendaritza Kontseiluan emango da.

## IV. KAPITULUA

**ANTOLAKETA****15. artikulua**

«Andrés Isasi» Musika Eskola erakunde bizia da eta profesionalki gaituak dauden pertsonak osatzen dute. Hala, beren antolatzeko modua zentroak dituen beharretara egokitzen dute, emanak dituzten funtzioak eta helburuak garatzeko.

«Andrés Isasi» Musika Eskola hurrengo elementuak egituratu ondoren antolatzen da eta, horri esker, oinarrizko egitura lortzen da:

1. Zuzendaritza-organoak.
2. Irakasleak edo irakaskuntzako langileak.
3. Administrazio eta zerbitzu langileak.

Era berean, Musika Eskolak elementu ezberdinak egituratzen ditu eta Eskolako erabiltzaileek horren ezagutza eta hobekuntza proposamenetan parte hartzea dute helburu.

**16. artikulua**

Zuzendaritza organoak ondorengo moduan banatzen dira:

- a) Pertsona bakarreko organoak:
  1. Zuzendaria.
  2. Pedagogia planaren arduraduna.
  3. Jardueren arduraduna.
  4. Idazkaria.
- b) Kide anitzeko organoak:
  1. Zuzendaritza kontseilua.
  2. Zuzendaritza taldea.
  3. Lantaldeak.
  4. Irakasleen klaustroa.

**17. artikulua.—Zuzendariari buruzkoa**

1. Zuzendaria zentroko funtzionamendu eta kudeaketa orokorraren arduraduna da eta erakundearen estatutuek, erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak eta indarreko legeriak emandako gidalerroekin bat jarduten du.

2. Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskola tokiko erakunde autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluak izendatu eta kargutik kenduko du.

3. Zuzendaritza taldeak aholkatuta zuzenduko du Musika Eskola eta erabakiak indarreko legeriari eta Araudi honi jarraiki hartuko ditu.

4. Erakunde autonomoaren estatutuek 10. artikuluan jasotakoez gain, honako funtzioak dagozkie:

- a) Zentroaren ordezkaritza ofizialki izatea, «Getxoko Andrés Isasi Udal Musika Eskola» tokiko erakunde autonomoaren lehendakariak dituen ordezkaritza ahalmenak baztertuta.
- b) Legeak eta gainerako xedapen aplikagarriak betetzea eta betearaztea.
- c) Zuzendaritza taldearen eta hala behar duten gainerako lantaldeen buru izatea.
- d) Zentroan kide anitzeko organoen bilera eta ekitaldi akademikoetarako deialdiak egin eta horien buru izatea, Lehendakariak berari baldin badagokio.
- e) Musika Eskolako dokumentu eta ziurtagiri ofizialak ontzat eman eta sinatzea.
- f) Ikasketa planak behin betiko onartzea.
- g) Jarduera akademiko eta ez akademikoak garatzean Zuzendaritza Kontseiluari berri ematea.
- h) Beharrezkoa izanez gero, txostenaren bitartez Zuzendaritza Kontseiluari orokorrean zentroko langileen eta ikasleen eskabideak iritsaraztea, betiere bere aginpideko arloak aipatzen dituztenean.
- i) Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluari zuzendaritza taldeko kideen izendapena proposatzea, izenda ditzan.
- j) Irakasleek eta gainerako langileek beren betebeharrak zorrozki betetzen dituztela zaintzea.
- k) Zuzendariaren eskumenaren esparruan, kide anitzeko organoen hartutako erabakiak gauzatzea.
- l) Beste musika-eskola, kontserbatorio, eta irakaskuntza eta musika zentro eta erakunde batzuekin harremana izatea eta lankidetzan aritzea; dena den, funtzio hau egokitzen jotzen den pertsonan eskuorde daiteke.
- m) Organo ofizial desberdinei estatistika txostenak bidaltzea.
- n) Erakundearen antolaketari dagokion eraginkortasuna aldizka ebaluatzea.

**18. artikulua.—Pedagogia planaren arduradunari buruzkoa**

Pedagogia Planaren arduraduna zentroko irakaslea izango da eta zuzendariak, eskolako plantillaren aholkua entzun ondoren, Batzorde Artekariari proposatuko dio honek izenda dezan. Pedagogia Planaren arduraduna Eskolan Pedagogia Plana gauzatzeko orduan garapenaren eta jarraipenaren buru izatez arduratuko da eta honako funtzioak izango ditu:

- a) Pedagogia koordinazio eta hausnarketa taldeen bileretan buru izatea.
- b) Hezkuntza programazioak egin, abian jarri, ebaluatu eta eguneratzean buru izatea eta zentroko pedagogia planari nahikoa koherentzia eta kohesioa eskaintzea, zuzendaritza taldeak finkatutako irizpideekin bat; horrez gain, programak egiaz betetzen direla eta, ondoren, ebaluatzen direla ziurtatuko du.
- c) Ordutegi akademikoak koordinatzea eta jarraitzea.
- d) Tutoretzak koordinatzea.
- e) Irakasleen jarduera akademiko guztiaren garapena koordinatzea.





- f) Ez dagoenean edo gaixo ageri denean zuzendaria ordezkatzea hezkuntza eremuarekin zerikusia duten zereginetan.

**19. artikulua.— *Jardueren arduradunari buruzkoa***

Jardueren arduraduna zentroko irakaslea izango da eta zuzendariak, eskolako plantillaren aholkua entzun ondoren, Batzorde Artezkariari proposatuko dio honek izenda dezan. Jardueren arduraduna antolatu ostean gizarte eragina duten jardueren arduratuko da eta hurrengo zereginak ditu:

- a) Eskolaren jarduerak koordinatzeko bileretan buru izatea.
  - Barrukoak (banako entzunaldiak, taldekoak, lehiaketak, sariak, etab.).
  - Beste udal arlo edo erakunde batzuekin batera egindako lanaren ondorioz burutzen direnak, xedeak edota helburuak partekatzen baditugu.
- b) Jarduerak antolatu eta koordinatzea eta, bidezkoa bada, antolaketa eta koordinazioa erraztea, baita betetzen direla jarraitzea ere.
- c) Ez dagoenean edo gaixo ageri denean zuzendaria ordezkatzeko jarduerak egitearekin zerikusia duten zereginetan.

**20. artikulua.— *Idazkariari buruzkoa***

Idazkaria administrazio eta zerbitzuen langileen taldeko pertsona izango da eta zuzendariak eskolako plantillaren aholkua entzun ondoren, Batzorde Artezkariari proposatuko dio honek izenda dezan. Idazkariak honako funtzioak izango ditu:

- a) Administrazio lantaldeen bileretan eta Eskolaren etengabeko hobekuntzarako diren horietan buru izatea.
- b) Etengabeko hobekuntzaren printzipiopean kudeaketarekin zerikusia duten alderdiak zehaztu eta abian jartzea. Adierazleak ustiatzea eta, oro har, prozesuen arabera kudeatzea.
- c) Zuzendaria ez dagoenean, administrazio eta zerbitzuko langileen burutza hartzea.
- d) Administrazio liburuak eta ziurtagiri akademikoak zaintzea.
- e) Ziurtagiri akademikoak egitea.
- f) Ez dagoenean edo gaixo ageri denean zuzendaria ordezkatzeko hezkuntzaren eremuarekin zerikusia ez duten zereginetan.

**21. artikulua.— *Zuzendaritza kontseiluari buruzkoa***

Zuzendaritza Kontseilua «Getxoko Andrés Isasi Udal Musika Eskola» erakunde autonomoaren organo gorena da eta horren gobernamentua nahiz kudeaketa bere gain hartzen du.

Konposizioa eta funtzioak Getxoko «Andrés Isasi» Musika Eskola tokiko erakunde autonomoari buruzko estatutuek 4. artikuluan eta hurrengoetan arautzen dituzte.

**22. artikulua.— *Zuzendaritza taldeari buruzkoa***

1. Zuzendaritza taldea Eskolako irakaskuntza eta jarduerak batu eta erabakitzeko organoa da eta zuzendariak, pedagogia plana jarraitzearen arduradunak, Eskolako jardueren arduradunak eta Eskolako idazkariak osatzen dute.

Eskolako zuzendariak, interesdunekin bat, Zuzendaritza Kontseiluari zuzendaritza taldearen kideak proposatuko dizkio, onar ditzan.

Zuzendaritza taldeko kideen agintaldia, zuzendariaren kasuan izan ezik, lau ikasturtekoa izango da. Zuzendariaren kasuan, erakunde autonomoaren estatutuei jarraiki izendatuko da eta kargutik kenduko zaio.

Zuzendaritza Kontseiluak, Zuzendaritzaren proposamenez eta interesdunekin bat, pertsona berdinak berriz aukera ditzake, nahiz eta lehendik karguan egon. Idazkariarena izan ezik, kargu horiek irakaskuntzarekin batera daitezke.



2. Nahitaez hilean bitan bilduko da, baita kideek egokitzat jotzen dutenean ere.
3. Hurrengo funtzioak ditu:
  - a) Zentroaren zuzendaritza eta koordinazioari buruz irizpideak onartzeko eta funtzionamenduaren inguruan garrantzi handiena duten erabakiak hartzeko zuzendariari laguntzea.
  - b) Pedagogia plan orokorra, jarduera orokorren programa eta zentroaren urteko lan plana egiteko irizpideak zehaztea, irakasleen klaustroak eta helburu horretarako Musika Eskolan sortuko diren lantalde ezberdinek aholkatuta.
  - c) Irakaskuntzaren eremu guztietan Eskolari koherentzia eta ekintza bateratasuna ematea.
  - d) Urteko txostenaren zirriborroa egitea.
  - e) Lantaldeak antolatzea eta ikasturtearen hasieran arloa arautzen duten arauak kontuan hartuta irakasleei jarduerak atxikitzeke irizpideak erabakitzea.
  - f) Bilera desberdinetan aztergaien zerrenda laguntzeko dokumentazioa prestatzea.
  - g) Hezkuntza jardueraren programazioa ikuskatzea.
  - h) Musika Eskolaren zerbitzura dauden langileen lana ikuskatu eta kontrolatzea.
  - i) Eskolako lantalde desberdinen txostenak eta proposamenak jaso eta aztertzea.
  - j) Zentroko langileen trebakuntza programak proposatzea.
  - k) Eskolako irakaskuntza eskaintzaren irizpideak proposatzea, bai eskearen arabera, bai sendotu nahi den eskaintza kontuan hartuta.

**23. artikulua. — Lantaldeei buruzkoa**

Taldean lan egitea eta lantaldea dira Musika Eskolaren antolaketa oinarriak.

Eskolako langile guztiek lantaldeetan parte hartuko dute.

Lantaldeak malguak dira, barne antolaketaren dinamika eta konposizioari dagokionez, eta egokitzeko gaitasuna izango dute etengabe aldatzen ari den gizartearen eskerei erantzuteko.

Lantaldeek beren lan plana zuzendaritza taldearen gidalerroen eta koordinazio orokorreko irizpideen arabera egingo dute.

Eskolak urteko planean ikasturterako zehazten diren lan prozesu eta zeregin desberdinen hausnarketari aurre egiteko lantaldeak jasoko ditu.

Ikasturte guztietan Musika Eskolak definitzen dituen funtsezko prozesuetan taldean lan egitea bermatuko du. Horien artean hurrengoak azpimarra daitezke:

- Eskolako pedagogia plana jarraitzea.
- Eskolako gizarte eragineko jarduerak.
- Etengabeko hobekuntza printzipioak kudeatzea. Hobetzeko neurtzea.

Ekipoek lan plana egingo dute eta urteko bileren egutegia sartuko da, lortu nahi diren helburuekin batera. Ikasturtea amaitzen denean, lanaren emaitza azken txostenean jasoko da.

**24. artikulua**

1. Irakasleen klaustroa Musika Eskolako irakasleak ordezkatzeko kide anitzeko organoa da. «Getxoko Andrés Isasi Udal Musika Eskola» tokiko erakunde autonomoan lan-kontratuko harremana duten irakasleek osatuko dute. Ildo horri eutsiz, bileretan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra izango dute.

Lehendakaria zentroko zuzendaria da eta bera ez badago, funtzio horiek pedagogia plana jarraitzearen arduradunak beteko ditu.

2. Klaustorako deialdia lehendakariak egingo du gutxienez hiru hilean behin edo kideen herenak idatziz eskatzen badu. Dena den, beren iritziz landu behar diren gaiak azalduko dituzte eta lehendakariak halabeharrez aztergaien zerrendan sartuko ditu. Az-



keneko ustezkoan, eskaera gauzatu eta hurrengo hamabost egunen buruan egingo da bilera.

3. Lehendakariak aztergaien zerrenda definituko du eta landu beharreko gaiak azalduko dira. Halaber, klaustroko kideek aurkeztutako gaiak izenda ditzake, aldez aurretik jakinarazi bazaizkio.

Aztergaien zerrenda irakasleen gelako iragarkien oholtzan aditzera emango da guxtienez bost egun lehenago.

4. Klaustroetan bileren buru lehendakaria izango da. Idazkari lanetan hautatutako idazkariak jardungo du eta hori izan ezean, xede horrez izendatutako pertsona batek. Eta akta egiteko funtzioa izango du. Akta horretan jardunaren hasiera eta amaiera orduak, partehartzaile eta joan ez direnen izen abizenak, baimena izan duten ala ez adierazita, eztabaidako puntu nagusiak, bozketa moduak eta emaitzak eta erabakitakoa jasoko dira,

Bilerako aktak zuzendariak eta idazkariak sinatuko dituzte eta ondorengo bileran onetsiko dira; behin onetsita, zuzendaritzaren, batzorde artezkariaren, klaustroaren eta hezkuntza ikuskaritzarentzat ikusgai egongo dira.

5. Irakasleen klaustroak ondorengo aginpideak ditu:
  - a) Eskolaren izateko arrazoiarekin zerikusia duten jarduerak eztabaidatu eta proposatzea.
  - b) Ikasketa programak eztabaidatzea.
  - c) Pedagogia esperimentazio eta ikerketaren eremuan ekimenak sustatzea.
  - d) Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluari komenigarritzat jotzen diren txostenak eta proposamenak iritsaraztea.
  - e) Klaustroko idazkaria aukeratu
  - f) Araubidez ematen zaion beste edozein.

## **25. artikulua.— Erabiltzaileek parte hartzea**

Musika Eskolak kanpoko partaidetzarekin egindako lana antolaketaren kulturaren zati izatea:

- Irakaskuntza zentroa den neurrian, ikasleen garapen integralerako familiekin elkarrikerria eta harremana garrantzitsua delako.
- Jarduera artistikoen sustatzailea eta bultzatzailea den heinean, herritar kontsumitzaile eta esperientzia artistikoen ekoizlearen kontzeptuan aurrera egiten uzten duelako.
- Etengabe hobetzez arduratzen den erakundea izateagatik, herritarrekin elkarriketara behar du hobekuntza arloak antzemateko.

Eskolak partaidetza garatzeko honako elementuak ditu:

- Tutoretzak familiekin.
- Familien eta Eskolako administrazio eta zuzendaritza organoen arteko elkarriketak.
- Erabiltzaileei asetze mailaren galdeketak.
- Eskolako Zerbitzuen Gutuna jarraitzea, erabiltzaileekin hartzen ditugun konpromisoak azaltzen baitira.
- Ohar, kexen eta iradokizunen programa jarraitzea.
- Erabiltzaileentzat eskolako araudiari, jarduerari eta abarri buruzko informazioa egin eta jakinaraztea.
- Eskabideak edo bestelako idazki ala bitarteko telematikoen bidez jasotako iradokizunak hartu eta erantzutea.
- Puntualki edo aldizkakotasun jakinarekin partaidetza guneak sortzea.



## V. KAPITULUA

**MUSIKA ESKOLAKO LANGILEEI BURUZKOA****26. artikulua**

Erakunde autonomoaren Zuzendaritza Kontseiluak, aldez aurretik langileen ordezkariekin negoziatuta, Musika Eskolako langileak eta lanpostuen zerrenda onartuko ditu eta ikasgai bakoitzari arreta eskaintzeko irakasleen kopurua zehaztuko du. Langileak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ontzat emango ditu, indarreko legezkotasunarekin bat.

Era berean, Zuzendaritza Kontseiluak administrazio eta zerbitzuetarako langileak onartuko ditu, eremu eta proposamen guztietan zerbitzua bermatua gelditzeko.

**27. artikulua**

Musika Eskolak erraztasunak emango ditu bere langileek jarduera sortzaileetan parte har dezaten eta ikastaro, kongresu edo beren espezialitateetako bestelakoetara joan daitezen. Helburua beren profesionaltasuna eguneratua mantentzea da.

Jarduera horiek lanaren garapenean eragiten dutenean, Musika Eskolako zuzendariak edo, bidezkoa bada, erakundearen burutzak emandako baimena nahitaezkoa da. Xede horrez, Eskolako administrazioak ezinbestez bete behar den inprimakia eskuratu-ko du.

**28. artikulua**

Irakasleak funtsezko bitartekariak dira hezkuntza prozesuan eta, ondorioz, beren lana ikasleen onarritako gaitasunak eta musika ahalmen bereziak garatzeko lanerantz bideratuko dute, ikaste esangarri, aktibo eta funtzionaletik abiatuta.

Beren erantzukizun nagusiak ondorengoak dira:

- a) Klaseen ordutegia puntualki betetzea.
- b) Klaseetan ordena, diziplina eta aprobetxamendua mantentzea eta horietan gertatzen den ohiz kanpokoaren berri arduradunari ematea.
- c) Zentroko Pedagogia Planarekin bat programazioak egin, garatu eta ebaluatzea.
- d) Gutxienez hiru hilez behin ikasleak ebaluatzea eta pedagogia txosten modura ebaluazioa idatziz jaso uztea. Halaber, horretan klaseetara hutsegite kopurua azalduko da: justifikatuak eta justifikatu gabeak.
- e) Beren ikaskuntza eta aukera akademikoak nahiz profesionalak bideratzeko ikasleen tutoretza beren gain hartzea.
- f) Atxikiak dauden lantaldeetan parte hartzea, hezkuntza testuinguruari egokitzen zaion ekintza koordinatua definitu eta lortzeko.
- g) Zentroko urteko plana egiten laguntzea eta dagokien neurrian horretan zehazten diren proiektu berezietan lankidetzan jardutea.
- h) Gobernu organo desberdinek zehazten dituzten prestakuntza jardueretan eraginkortasunez parte hartzea.
- i) Zentroaren antolaketan eta abiada onean laguntzea, zehazten diren arduradunen koordinaziopean.
- j) Irakasleen klaustroetan, bileretan eta gainerako egintza ofizialetan parte hartzea.
- k) Zuzendariak, erakundeko lehendakariak edo Zuzendaritza Kontseiluak ematen dituzten arauak betetzea, alde batera utzi gabe instantzia egokietara jotzea, kalteua sentituz gero.
- l) Hautatu ostean, karguak onartzea. Bakarrik uka daitezke kargua lehen bete izanez gero edo arrazoi mediko edo pertsonal justifikatuak badaude.
- m) Beren zereginek hobe funtzionatzeko eta Musika Eskola hobetzeko zuzendariari egokitzat jotzen dituzten proposamenak jakinaraztea.

**29. artikulua**

Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskolako administrazio eta zerbitzuetako langileen zeregin nagusia zerbitzuari laguntza lanak eskaintzea izango da: Musika Eskolako barne eta kanpoko erabiltzaileari informazioa eta arreta, erakundearen berezko administrazio zereginak eta zentroan bertan garatzen diren jarduerak eta proiektuak egiteko erraztasunak ematen dituztenak.

Administrazio langileek, ordenantzek eta mediatekak osatzen dute.

**30. artikulua**

Eskolako langileen lan harremanak zentroko hitzarmen kolektiboak adierazitakoaren arabera arautuko dira eta, hori izan ezean, Getxoko Udaleko hitzarmen kolektiboari erreparatuko zaio.

Langileekin harremanak, lehenetsiz, langileen ordezkarien bitartez egingo dira.

## VI. KAPITULUA

**IKASLEEI BURUZKOA****31. artikulua**

Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskolako ikasleen eskubideak eta betebeharrak 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoan ikastetxe ez-unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, arautzen ditu eta, gainera, barne araubideko arautegi honen hurrengo artikuluetan ageritakoak kontuan hartu behar dira.

**32. artikulua**

Ikasleei hurrengo eskubideak onartzen zaizkie:

- a) Duintasun pertsonalean errespetatuak izatea eta urritu gabe tratatu egokia izatea.
- b) Eskola errendimendua objektibotasun irizpideekin balioztatzea. Hiruhileko bakoitza bukatzean eta ikasturtea amaitzen denean ikasleak bere tutorearen eskutik txostena jasoko du eta aprobetxamendua, jarrerak nahiz ikasgaien interesa azalduko dira.
- c) Zentroaren organoen aurrean ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak formulatzea eta behar bezala arreta eskaini eta erantzutea.
- d) Zehaztutako ordutegi akademikoak errespetatzea.
- e) Kalitatezko irakaskuntza jasotzea eta helburua betetzeko zentroan dauden bitarteko materialak erabiltzea.

**33. artikulua**

Udal Musika Eskolako ikasleak ondorengoetara behartuak daude:

- a) Irakasleen eta ikaskideen duintasuna errespetatzera eta zentroko bizikidetasun arauak gordetzera.
- b) Ikasten ari diren ikasgaien klaseetan parte hartzera.
- c) Horrek eskatzen duen denboraz eta dedikazioz ikasgaia ikastera.
- d) Zentroak programatutako entzunaldi eta ariketa publikoetan parte hartzera eta, aldi berean, beharrezkotzat jotzen diren entseguetan esku hartzera.
- e) Zuzendariaren eta irakasleen xedapenak eta aginduak betetzera, irakaskuntza araubideari, ordenari eta barne diziplinari dagokionean.
- f) Egoitza aldaketak jakinaraztera.
- g) Zentroko eraikinean edo materialean sortzen diren kalteak zaharberritu eta konpontzera.
- h) Zentroak adierazitako epean tasak edo ordainketak eguneratuak izatera.

**34. artikulua**

1. Ikasleek egindako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

*Honakoak arau-hauste arinak dira:*

- a) Justifikatu gabe ez bertaratzea, baina ez errepikatzea.
- b) Behin eta berriz puntualtasunik ez izatea, arrazoi justifikaturik gabe.
- c) Oro har, eskakizunak edo eginbeharrak betetzean axolagabekeria.

*Hurrengoak arau-hauste larriak dira:*

- a) Justifikatu gabe ez bertaratzea eta, gainera, errepikatzen denean.
- b) Behin eta berriz arau-hauste arinak egitea.
- c) Orokorrean, ikasleen eskakizunak eta eginbeharrak dolo ez betetzea, betiere arau-hauste oso larritzat jotzen ez direnean.

*Hurrengoak arau-hauste oso larriak dira:*

- a) Musika Eskolako irakasle eta agintariengan obedientziarik eta errespeturik eza.
  - b) Zentroan liskarrak eta borrokak sortu eta horietan parte hartzea.
  - c) Zentroko ikasleen duintasunaren aurka doazen ekintzak.
  - d) Irakaskuntza biziaren egintzetan nortasuna ordezkatzeko eta dokumentuak faltsutzea.
  - e) Musika Eskolako ondasunei kalteak sortzea.
2. Arau-hauste arinak behin eta berriz egiten badira, ohartaraziko da.
  3. Bertaratzerik eza honako moduan arautuko da:
    - a) Instrumentuen ikasgaietan edota asteko klase batean hiruhilekoan justifikaziorik gabe hiru falta edo denboraldi berean sei falta ditzuten ikasleei, azkenekotik aste bete igaro baino lehen justifikatzen ez badituzte, zentroan eskolatzea galduta zigortuko zaie.
    - b) Instrumentuan edo asteko klasearen ikasgaietan sei aldiz falta edo beste edozein ikasgaietan hamar aldiz diren ikasleei automatikoki baja emango zaie gaixotasun luzearen justifikaziorik ez badago eta, gainera, behar bezala egiaztatu eta ziurtatzen ez bada.
    - c) Ikasle batek hiruhileko batean asteko klasea duen ikasgaietan 2 falta edo gainerako ikasgaietan justifikatu gabe 5 falta egin baditu, zentroko administrazioak ohartaraziko dio beste falta bat eginez gero izan ditzakeen ondorioak.
  4. Arau-hauste larriak aldi baterako kanporatuta zigor daitezke, baina denbora ez da hogeita hamar egunetik gorakoa izango, ezta zazpitik beherakoa ere.
  5. Arau-hauste oso larriak honako moduan zigor daitezke:
    - a) Bi urtez Musika Eskolan ofizialtasunaren eskubidea etetea.
    - b) Ikaslea erabat baztertzea eta matrikulatzeko erabateko debekua izatea.
  6. Arau-hauste arinak Musika Eskolako zuzendariak zuzenduko ditu.

Arau-hauste larriak eta oso larriak lehendakariak zuzenduko ditu. Lehendakariak, zuzendaritza taldeak txostena egin ostean, arazoa duen ikaslea, gurasoak eta tutoreak deituko ditu, egoera azaltzeko eta argudioak nahiz alegazioak entzuteko. Hiruhilekoa igarotakoan ikasleak jarrera berdinarekin jarraitzen badu, berriz deituko zaie interesdunei zentrotik botako zaiola jakinarazteko.



## VII. KAPITULUA

## ARAUBIDE AKADEMIKOARI BURUZKOA

**35. artikulua**

Musika Eskolan administrazio izapideak aurrez aurre (Eskolako administrazioak horretarako eskuratutako inprimakia betez) edo online egin daitezke. Xede horrez, Udaleko web orriak argibideak emango ditu.

MUSIKA ESKOLAN SARTU ETA BAJA EMATEKO PROZEDURA.  
IRAUPEN MUGA**36. artikulua**

Getxoko «Andrés Isasi» Udal Musika Eskolan ikasleen gehieneko matrikula ikasturtea hasi baino lehen finkatuko da eta espazio nahiz irakasleen kopuruari erantzungo dio.

**37. artikulua**

Ikasleen matrikulak zehaztutako datetan egingo dira eta beharrezko aurrerapenez iragarri ostean aditzera emango dira.

**38. artikulua**

1. Matrikulazioa ikasturtearen ordutegia baieztatutakoan behin betikotzat joko da. Baieztatzen denean, ikasleak zentroan zehaztutako arauak eta ordutegiak onartuko ditu, beraz, ikasi nahi dituen ikasgai guztiei buruz alderdi guztiez jakinaren gainean gelditzeko eskubidea izango du.
2. Egoitzen arabera ikasleak banatzeko irizpideak: ahal den guztietan ikasleek beren etxeetatik hurbilen dagoen egoitzan ikasiko dute, espezialitatea eskusiboki batean irakasten den kasuetan izan ezik. 14 urtetik behera dituztenek dagokien egoitzan ikasteko lehentasuna izango dute, plazak nahikoak ez badira.
3. Izena emateko eskabideen kopurua bete beharreko postuena baino handiagoa bada, zorrozki zozketa publikoari erreparatuz onartuko dira. Zozketaren data modu egokian iragarriko da Musika Eskolako iragarkien oholtzan eta Udalaren web orrian.
4. Udalerriko biztanleak ez direnek Musika Eskolan lehenengoz matrikulatu nahi balute, matrikula formaliza lezakete plaza hutsak baleude, Getxoko biztanleen eskabide guztiei arreta eskaini ondoren.
5. Instrumentua adjudikatzea: lehenengoz instrumentuaren ikasketak eskatzen dituzten ikasleek matrikularen eskabidean ikasi nahi dituzten hiru instrumentu adierazi beharko dituzte (proposatzen den instrumentu bloke bakoitzean hautatzeke) lehentasunezko ordenan.  
Instrumentua ikasteko hautagaiak, lehenetsiz, hamalau urtetik beherakoak izango dira.  
Plazen eskea eskaintza baino handiagoa denean, zozketa egingo da plaza eskuragarriak adjudikatzeko. Lehenengo instrumentuko (edo instrumentu blokeko) plaza libreak betetzen direnean, bigarrena edo hirugarrena esleituko zaio, zozketaren ordenaren arabera eta plaza eskuragarriak bete arte.  
Eskatutako hiru instrumentuetatik (edo instrumentu blokeetatik) bat ere ez denean esleitu, gainerako instrumentuetan plaza eskuragarriak eskainiko dira, zozketan zehaztutako ordenari jarraiki.
6. Bigarren espezialitatean matrikulatzea  
2018-2019 ikasturtetik ez zaio bigarren espezialitatean matrikulaziorik egingo hala eskatzen duen ikasle berriari.  
Ikaslea matrikulatua egon den espezialitatean mantentzeko eta Eskolak zehazten dituen musika taldeetan mantenduko da.



Espezialitate bateko ikasketak amaitzen dituzenean, matrikulazioak bigarren espezialitatean gehienez hamabi ikasturte iraungo ditu.

7. Eskolan bajak.

Ikasleak honako arrazoi batengatik baja emateko aukera izango du:

- 7.1. Ikasketak amaitzea: Musika Eskola honen irizpidea da, orokorrean, instrumentuaren irakaskuntza nagusian eta bakarkako kantuan gehienez 12 ikasturteko dedikazio-aldia izatea, Musika Eskolako pedagogia helburuak betetzeko egoera baita.

Denbora hori igarotzen denean espezialitatean matrikulazioa onartuko da hurrengoetan:

- Plaza libre dagoenean, hau da, Eskolan bertan hautagai berririk edo ikasle berri bezala ez dagoenean, udalerritik edo kanpotik etorruta.
- Eskolako taldeetan matrikulatuta dagoenean.

Nolanahi ere, betiere Eskolako instrumentuen taldeetan matrikulatua mantendu daiteke, baldin eta tokirik badago.

- 7.2. Ikasgai zehatza ez egiten jarraitzeko ikaslearen borondatezko nahia.

Ikasleak berriz onartzea eskatzen duenean ez du lehentasunik izango.

- 7.3. Ikasturte osoan klaseetara joateko ezintasuna honako arrazoi batengatik (guztiak dokumentuz egiaztatutakoak):

- a) Gaixotasuna.
- b) Ikasketak egitea
- c) Lan egoera berezia.
- d) Familia egoera berezia.

Halako kasuetan, ikasleak ikasturterako eszedentzia akademikoa eska dezake eta ikasleari baja emango zaio.

Eszedentziaren egoera ezingo da ondoz ondo bi ikasturtez baino gehiagoz luzatu.

Eszedentziaren ondorioz ez da plaza gordeko, baina, bai, ikaslea matrikulatua zegoen espezialitatean plaza betetzeko lehentasuna Musika Eskolan edozein hautagai berriren aldean.

- 7.4. Justifikaziorik gabe behin eta berriz ez joateagatik zentroan ikaslearen baldintza galtzea, araudi honen 34. artikuluan jasotzen den bezala.

- 7.5. Aprobetxamendu ezagatik zentroan ikaslearen baldintza galtzea, araudi honen 8. artikuluan jasotzen den bezala.

- 7.6. Zentroan ikaslearen baldintza galtzea betebeharrak ekonomikoak ez betetzeagatik:

Eskola hiruhilekoa amaitu eta hurrengo hileko lehenengo hamar egunetan hiruhilekoari dagozkion kuotak ordaindu gabe dituen ikasleari baja emango zaio betebeharrak ekonomikoak ez betetzeagatik ez bada salbuespen egoeraren bat (adibidez gerora sortutako egoeragatik diru-laguntza eskatzea) eta beti ere jakinarazia eta Musika Eskolaren administrazioan erregistratua.

Artikulu honetako 1. eta 2. ataletan jasotzen diren egoerarako ikasleak zentroko idazkaritzak eskuratutako eskabideak beteko ditu edo web orrian eskura dauden bitartekoak erabiliz eskatuko du.

Hutsak itzarote zerrendan dauden ikasleekin beteko dira.

BESTELAKO ADMINISTRAZIO IZAPIDEAK

**39. artikulua. — Irakaslea aldatzeko eskaera**

Ikasleek irakaslearen aldatzea eskatzeko eskubidea dute eta egokitzen dituzten pedagogia gorabeherak alegatuko dituzte. Horretarako, xede hori duen eskabidea





beteko dute eta Eskolako administrazioan entregatu ere bai. Eskaera aldekoa izateko, nahasitako irakasleen oniritzia beharko da eta, gainera, irakasle hartzaileak bere ordutegian plaza eskuragarriak izango ditu.

Eskaerak, batez ere, matrikulazioaren denboraldian egingo dira, ikasturtearen antolaketa urteko une horretan egituratzen baita.

**40. artikulua.— Hurrengo eskaerak: Ordutegia aldatzea, espezialitatea aldatzea, taldea aldatzea, egoitza aldatzea**

Ikasleek ordutegi, espezialitate, talde edo egoitzaren aldaketa eskatzeko eskubidea dute eta egokitzen dituzten gorabeherak alegatuko dituzte. Horretarako, xede hori duen eskabidea beteko dute eta Eskolako administrazioan entregatu ere bai. Halaber, eskaerak Udaleko web orriaren bidez egin daitezke.

Eskaerak, batez ere, matrikulazioaren denboraldian egingo dira, ikasturtearen antolaketa urteko une horretan egituratzen baita.

Eskabidea aldekoa izateko, Eskolako administrazioak oniritzia eman beharko du eta irakasle hartzaileak ordutegian plaza eskuragarriak izango ditu.

**41. artikulua.— Ikasgela eskatzea**

Ikasgela erabili nahi duen ikasle orok Idazkaritzan eskatzeko inprimakia bete beharko du eta beharrezko baldintzak beteko ditu. Eskaera Udaleko web orriaren bidez egin daiteke.

Ikasgelak doan erabiliko dira, betiere Eskola irekita badago.

**42. artikulua.— Instrumentua mailegatzea**

Musika instrumentua edo Zentroko material zehatza maileguan eskatzen duen ikasle orok Idazkaritzan eskatzeko inprimakia bete beharko du eta beharrezko baldintzak beteko ditu. Eskaera Udaleko web orriaren bidez egin daiteke.

**43. artikulua.— Familientzako laguntzak eskatzea**

Erakundearen lehendakaritzak ikasturte bakoitzean familientzako diru-laguntzen deialdia ebatziko du. Deialdia behar bezala iragarriko da Eskolako iragarkien oholtzan eta Udaleko web orrian.

VIII. KAPITULUA  
**MEDIATEKARI BURUZKOA**

**44. artikulua**

Mediateka bai Eskolako irakasle eta ikasleentzat, bai hurbiltzen den edozein erabiltzailearentzat musikaren informazio eta dokumentazio beharrei erantzuteko tokia da. Musika Eskolaren Ondare musikala zein bertan emanda edo bertan utzitako ondare patrimonialak administratuz.

Zeregin hori garatzeko Mediatekak dokumentu bilduma koherente eta eguneratua izango du, zentroko musika jarduerarekin bat. Eta ahal dela hurbiltzen den edozein erabiltzailek egin ahal dituen iradokizunak kontuan izanda.

Mediatekak jarduera soziokulturalak eskainiko ditu, Musikaren Historiari buruzko eza-gutzan laguntzeko, musika maite duen eta zaletua den jende berria areagotzearekin batera.

**45. artikulua.— Funtzioak**

Musika Eskolako Mediatekak, lehentasunez, hurrengo funtzioak ditu:

- Lana garatzeko behar den fondo dokumentala sortu eta mantentzea.
- Ikastetxeko jarduera musikala artxibo historiko audiobisuala sortu eta mantendu.
- Irakasteko behar diren bitartekoak erraztuz.



- Sustatu edo antolatzen dituen jarduera musikalak eta fondoak zabalduz.
- Bertan dauden fondo patrimonialak zaindu, kudeatu eta zabaldu.

**46. artikulua. — Sarrera**

Mediatekan irakasleak, ikasleak, zentroko ikasleen gurasoak eta eskatzen duen oro sar daitezke. 8 urtetik beherakoek adinduaren laguntza beharko dute joateko.

Mediatekan sartu eta hori erabiltzeko arauak nahitaez beteko dira eta jendeak ikusten dituen tokian jarriko dira.

**47. artikulua — Zerbitzuak**

Mediatekak honako zerbitzuak eskainiko ditu: informazioa, kontsulta, mailegua, entzunaldia, grabaketa. Ikus-entzunezko ikuskatzea, zabalkundea, animazioa eta zabalpen bibliotekarioa.

**48. artikulua. — Informazioa**

Erabiltzaileari prestakuntza eta informazio zerbitzu orokorra zentroko gelan eta informazio paneletan (bi egoitzetan).

**49. artikulua. — Kontsulta**

Mediatekak kontsulta zerbitzua eskainiko du, bai gelan, bai telefonoz edo posta elektronikoz.

- Kontsulta gelan: gelan liburuak, partiturak, aldizkariak, katalogoak, ikastaroen publizitatea, lehiaketak eta kultur nahiz musika eskaintza hurbilena kontsulta ditzakezu.
- Telefonoz/e-postaz kontsultatzea: telefonoz eta posta elektronikoz kontsultei erantzungo zaie eta berehala edota idatziz erantzungo dira. Horrez gain, gertatuko baliuz, liburutegiaren arteko mailegua egiteko aukera dago.

**50. artikulua. — Mailegua**

*Arau orokorrak:* mailegutzat joko da, betiere mediatekako edozein material bertatik ateratzen denean eta jendeari arreta eskaintzeko erakusmahai formalizatuko da.

Mailegua klasean erabili edo etxera eramateko izan daiteke:

- Klaserako mailegua bada, klasea amaitutakoan itzuliko da, jendearentzat irekia dagoen ordutegiaren barruan.
- Etxerako mailegua: liburutegiko bazkidea edo ikaslea izatea ezinbestekoa da (kontsultatu sartzeko eta erabiltzeko arauak).
  - Epea: Bi aste (betiere mediatekaren funtzionamendu ona asaldatzen ez bada), baina berritzeko aukerarekin.
  - Etxerako maileguaren arau bereziak:
    - Liburuak: 2 (erreferentziazko obrak izan ezik).
    - Aldizkariak: 4 (jasotako azkeneko zenbakia izan ezik).
    - Partiturak: 3 (eta ez 3 baino gehiago egun berean).
    - CDak, kaseteak eta bideoak: 2.

Mailegua berritzeko baldintzak: materialaren eskaerarik ez izatea eta kontserbazio egoerak ez eragozteak.

Materiala itzultzean atzeratuz gero, atzerapenaren denbora berdinez ezingo da mediatekatik ezer atera eta ondoz ondo atzeratuz gero, arduradunari urtebetetik beherako epean mailegatuzetik bazter dakioko.

*Materiala larriki kaltetzea edo galtzea:* arduradunak lehengoratu edo zaharberritu beharko du eta mailegurako eskubidetik kanpo geldituko da materiala zaharberritu arte.

Maileguaren eskabidea sinatzen duena izango da materiala zaindu eta behar bezala erabiltzeaz arduraduna eta ez ditu copyrighten eskubideak urratuko (22/1987 Legea, azaroaren 11koa, Jabetza Intelektualari buruzkoa).

**51. artikulua.— Ondare funtsak lortu/ikertzea**

Aztertu/ikertzeko funts berezietara sarrera berariaz eta modu justifikatuan eskatzen dutenentzat mugatuta dago (ondare funtsetara sartzeko eskabidea bete beharko da). Nolanahi ere, alde aurretik hitzordua hitzartu beharko da, nagusiki, mediatekak jendea-ri arreta eskaintzen dion ordutegitik kanpo. Zerbitzu bakarra eta zuhurra eskaintzeko, mediatekak eskaintakoaren kalterik gabe, jendaurreko ordutegitik kanpo alde aurretiko zita jarriko da.

Aurrez-aurrekoak ez diren eskaerak ahalik arinen erantzungo dira, materialak ahalik formatu-rik egokienean eskainiz; beri ere baliabideen arabera.

**52. artikulua— Animazioa**

Mediatekan Jarduerak antolatuko dira hurrengoetarako: jende berria erakartzeko, erabiltzaileak musika eta funtsetara hurbil daitezen sustatu, sendotu eta bultzatzeko, musika entzutean gozatzeko (gelan orkestraren musika denboraldietan programatutako obrak eta EAEko musika erakundeak, hastapen hitzaldiak...) eta banaka nahiz taldean musikan jarduteko («musika menuak», «musika minutuak»...). Jarduerak behar bezala iragarriko dira.

Zeregin hori zabaltzeko, mediatekak gure ingurune-ko orkestra eta arte eszenikoekin zerikusia duten beste erakunde batzuen bitartez (BOS, EGO, OSE, OLBE...) musika biziarekin zerikusia duten jardueratan partaidetza kudeatuko du. Hala, ekitaldietarako sarrerak iragarri eta emango ditu, musika jardunari eta hori entzuteari jendea hurbil dadin sustatzeko.

**53. artikulua.— Mediatekaren beste zerbitzu batzuk**

- *Entzunaldia*: erabiltzaileak mediatekara hurbil daitezke bere funtsa entzutera. Entzunaldiak banaka edo taldean egin daitezke (alde aurretik eskatu ostean, zerbitzua ez asaldatzeko).
- *Grabaketa*: erabiltzaileek mediatekari agiritegiko zatiak grabatzea eska diezaiokete, interpreteak berariaz baimentzen baditu. Halaber, ikasteko zatiak eska daitezke, betiere jabetza intelektualaren legea urratzen ez badute.

**54. artikulua.— Zerbitzuak irakasleei**

Zentroko irakasle guztiek mediatekako funtsak eskuratu ahal izango dituzte, jendea-ri arreta eskaintzeko ordutegiaren barruan.

Mediatekako zerbitzuek arreta berezia eskainiko diete zentroko irakasleei beren pedagogia lana errazteko (mailegua, kontzertuen informazioa, gonbitak banatzea...).

Irakasle orok mediatekak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabil ditzake eta beren ikasle taldeek lehentasuna dute, betiere eskola jarduerak hala eskatzen duenean.

Mediatekako arduradunek aldizka irakasleentzat informazio interesgarria eskuratuko dute, espezialitateen arabera funtsen zerrendekin batera.

Mailegua liburutegiko langileek egingo dute eta, ahal denean, ikasgelan emango da, pedagogia jarduera ez eteteko.



Mailegua beste hilabete batez automatikoki berri daiteke. Aipatu epea gainditutakoan, berritu beharko da betiere materialaren eskaerarik ez badago eta kontserbazio egoerak hala ahalbidetzen badu. Materiala itzultzean edota, bidezkoa bada, mailegua berritzean arrazoirik gabe atzeratzen bada, atzerapenaren denboraldi berean liburutegitik ezingo da ezer atera. Materiala kaltetu edo galduz gero, arduradunak lehengoratu edo zaharberritu beharko du eta mailegurako eskubidetik kanpo geldituko da materiala zaharberritu arte.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Araudi hau 2018ko urriaren 1ean sartuko da indarrean eta aurreko araudia indargabetua geldituko da.